Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 396

Maiatzak 1, 2021

“Espainiako Txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake, Europan jolastu ahal izateko”

2 Irun Atzo, Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Kutxa Bira
5 Transitozko migratzaileen egoera
6 Opila
7 Hamaika
8 Kirolak: Real Union
9 Kirolak: Elene Sagardia
10 Azken Portuko proiektua
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Belaskoenean bizikletan
14 iGazte
15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko maiatzaren 8an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak duela 100 urte Irunen albiste ziren gertakariak biltzen ditu. Aldizkaria S. Ignotusek sinatutako "Cuento Vasco" izenburuko artikuluarekin hasten da, kondaira baten bitartez Bidasoa ibaiaren bazterretan mugitzen zen sorgin bat eta Ramon izeneko bere hiltzailearen artean gertatutakoa kontatzen da. Jarraian, Yolek "Versos inéditos" atalean "En el desierto" tituluko olerkia irakur daiteke. Arkale aldizkariko ohiko kolaboratzaileak "Materias de primer orden" izenburua duen idatzian, politika eta alderdi politikoen jarrerarekin loturiko artikulu zabalaren sarrera aurreratzen du, idatzia hurrengo igandeko aldizkarian jarraipena izango duela jakinarazteko

Kirol kronikan Espainiako futbol txapelketaren finala da protagonista eta, txapelketa erregionaleko azken partiduen emaitza gogoratzeaz gainera, finala jokatuko duten jokalariak aipatu eta afizioaz hitz egiten da. Era berean, kirolari eskainitako atalaren barnean bestelako kirol ekitaldiak aipatzen dira, modu laburragoan bada ere. Colón futbol klubak haurrentzat antolatutako lasterketa edo Amuteko partiduen gorabeherak aipatzen dira, besteak beste. Kontakizun luze baten bitartez P. Sarasquetak maiatzaren 1ean ospatzen den Langilearen Egunean bidaiari batek Irunen izandako bizipenak kontatzen ditu, egun hartaz disfrutatzen lagundu zioten irundarrei eskerrak emateko. Idatzi horren ostean, "El Bidasoa" aldizkariko zuzendariari idatzitako gutunean hauteskundeen antolaketak ezkutatzen dituzten trikimailu eta iruzur txikiak salatzen dira, hiritarrak jakinaren gainean jartzeko.

"Inquilinos y caseros" titulua daraman idatzian etxejabe eta maizterren arteko gaizki-ulertuez hitz egiten du Sarabatillok, alokairuen prezioaren igoera bidegabea salatzeko. "Charlas femeninas" atalean "El Bidasoa" aldizkarian olerkiak argitaratu ohi dituen Yole olerkariari emakumeen aldeko poemak argitaratzen jarraitzea eskatzen zaio, emakumeak indartzeko horrelako ekintza txikiek duten garrantzia erakusteko. Hurrengo idatzian Bellas Artes antzokian datozen egunetan egitekoa zen organo entzunaldia iragartzen da. Aldizkariaren azken orrialdearen aurretik, "Notas municipales" eta "Noticias" atal ezagunekin osatzen dira azken artikuluak.

Argazkiak:

38127: Emakume bat Pausu eta Biriatou lotzen zituen errepidetik ibiltzen, Bidasoa ibaiaren bazterretik (XX. mendearen hasierako irudia).

48962: Pikoketa kalea, eskuinean Bellas Artes zine-antzokia ageri delarik. Antzokiak bere jarduera 1914. eta 1973. urteen artean garatu zuen.

38411: Emakumea eta haurrak Peña kalean. Atzealdean, Urdanibia plaza. (XX. mendearen hasierako irudia).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Carlos Sánchez

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalak bertan behera utzi du aurtengo jaietako egitaraua

Irungo Udalak jakinarazi duenez, bigarren urtez COVID-19ren pandemiagatik 2021eko San Pedro eta San Martzial jaietako programa bertan behera uztea erabaki du. Izan ere, apirileko azken datuen arabera Gipuzkoa gune gorrian sartu da, azken asteetan birusaren kutsaketek gora egin dute eta Irunen, zehazki, 14 eguneko 100.000 biztanleko intzidentzia tasa metatuak 400 kasuen langa gainditu dituela ikusita hartutako erabakia izan dela azaldu du udalak.

Udalaren iritziz, egoera ikusita hiriko jaiak ez ospatzea da jarrera arduratsuena. Erabaki horren bitartez pandemiaren aurkako borrokan egiten ari den lan handia arriskuan jartzea saihestu nahi da. Udalak zabaldutako mezuan irakur daitekeenez, "urte luze honetan herritar guztiek egin duten sakrifizioa" arriskatzea ekidin nahi da.

Era berean, udalak hilabete hauetan guztietan irundarrek pandemiaren aurka borrokatzeko erakutsi duten konpromisoa eskertu du, neurriak betetzen jarraitzeko deia egiteaz gainera. "Izan ere, horrela, 2022an –dena pasata egongo da!– ilusio eta gogo handiagoz ospatu ahal izango ditugu elkarrekin San Pedro eta San Martzial jaiak", adierazi dute udaletik.

Gauzak horrela, jaietako programa bertan behera uzteko erabakia Kultura, Kirol eta Euskara arloetan eta Hiri Bultzadako batzordean jakinarazi da jada. Hain zuzen ere, batzorde horretan, Udalbatzako talde guztiak eta hiriko hainbat batzorde ordezkatuta daude. Horretaz gainera, komunikatu bat bidali zaie jaietako programaren antolaketan parte hartzen duten elkarte eta entitateei, jakinaren gainean egon daitezen.

Irun Aurrera planaren edizio berriak hiriko ekonomia eta gizartea suspertzeko helburuari eutsiko dio

Irungo Udalak ia Irun Aurrera plana aktibatu zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu eta aste gutxira. Hiriko ekonomia eta gizartea suspertzeko planaren barnean, pizgarri ekonomiko eta fiskalak eta prestakuntza eta kontsumoa sustatzeko neurriak hartu ziren enpresa, autonomo eta familiei laguntzeko.

2020an barrena, plana osatzen, zabaltzen eta unean uneko egoerara egokitzen joan zen, eta, orain, pandemiak eragindako egoera luzatzen ari dela ikusita, 2021erako, Irungo Udalak Irun Aurrera planaren bigarren edizioa jarri du martxan, hainbat berrikuntzarekin. Planaren jardueretarako guztizko aurrekontua 4,2 milioi eurotik gorakoa da eta lau bloke nagusiz osatuta dago.

Pizgarri ekonomikoak
Pizgarri ekonomikoen atalaren barnean dago Irun Aurrera planaren 2021eko edizioaren berritasunetako bat: mikrokredituak emango zaizkie autonomo eta mikroenpresei eta irabazi asmorik gabeko elkarteei. Mikrokreditu horiek 10.000 euro artekoak izan ahalko dira, lau urteko epea izango dute eta Udalak finantzatuko ditu interesak. Gainera, kultura sektoreari lagunduko zaio, Kultura km 0 programaren bigarren edizioa martxan jarrita. Era berean, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planaren barruko diru-laguntzak eta irisgarritasuna sustatzeko laguntzak emango dira, familiei laguntzeko eta bertako gremioen jarduna sustatzeko. Azkenik, hornitzaileei azkar eta arin, zazpi egunetan, ordaintzeko konpromisoa mantenduko du Udalak.

Pizgarri fiskalak
Pizgarri fiskalekin loturik dago planaren beste berrikuntzetako bat: hilabete honetan, 2021ean kirol taldeek udal kirol instalazioak erabiltzeko tarifari ia %100eko hobaria aplika dakion onartzea proposatuko zaio Udalbatzari. Bestalde, 2021 osoan, %95ekoa izango da terrazak instalatu edo Urdanibiako azoka txikiko salmenta postuak eta antzekoak jartzeko hobaria.

Azkenik, pandemiaren harira ezarritako aldi baterako itxialdiek kaltetutako jarduera ekonomikoak urez hornitzeko eta berauen zaborra biltzeko tasei % 100eko hobaria aplikatzea aurreikusten da. Beste berritasunetako bat denbora luzez itxita jarraitzen duten jardueretarako (txokoek, kultur jardueretarako lokalek, aisialdikoek, gauekoek...) ez dute tasa ordaindu beharko. Era berean, familia zaurgarrientzat ordaindu beharreko tasen % 50eko hobaria mantenduko da.

Pizgarri sozialak
Pertsonentzako laguntza ekonomikoek osatuko dute planaren lerro nagusia. Joan den urteko hazkundea mantenduko da, baita diruz lagundu daitezkeen gastuen inguruko aldaketak ere (maskarak, online eskoletarako ekipamendu informatikoa, etab.). Gainera, 2021eko aurrekontuen barruan, 20.000 euro gehituko zaizkio, COVID-19aren ondorioak arintzen laguntzeko.

Bestalde, Zubia zentroa 24 orduz egongo da zabalik, eta gaueko harrera zerbitzuaren gaitasuna handituko da. Gainera, doluan laguntzeko taldeak eratuko dira, egungo egoeraren edo gaixotasunaren beraren ondorioz kaltetuak izan diren pertsonei laguntza terapeutikoa emateko.

Bertako merkataritza eta kontsumoa
Aste batzuen buruan eta uztailaren bukaerara bitartean, Irungo saltoki eta ostatuetan erosteko eta kontsumitzeko bonuen hirugarren edizioa martxan jarriko da. Era berean, bertako saltokiek online saltzeko plataformaren diseinua eta ezarpena kontratatzeko lanean ari da Udala. Horrekin batera, bertako saltokien digitalizazioaren esparruan, TicketBAI proiektua abian jartzeko laguntza gehiago emateko lerro bat sortuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahitaezko programaren bidez.

Azkenik, Irun Aurrera planaren barruan badira lehendik saltoki berriak irekitzea bultzatzeko arrakasta izan duten jarduerak, hala nola K-Biziak programa, aurten 95.000 euro aurrekontua izango duena. Gainera, Merkataritza Mahaiaren ekimenez bertako saltokiei laguntzeko komunikazio digitaleko kanpaina bat jarriko da martxan.

Prestakuntza sustatzeko pizgarriak
Planak merkataritza eta ostalaritzaren alorreko offline eta online prestakuntzarako hainbat jarduera hartzen ditu barnean, marketin digitalaren eta COVID-19aren osteko erronka berrien gainekoak, baita mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arreta soziosanitarioaren profesionalizazioa ziurtatzeko prestakuntza jarduerak eta ekintzailetza zirkularra sustatu eta hartaz sentsibilizatzeko jarduerak ere.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Kutxa Bira ekimenaren lekukoa hartu du Irunek

Kutxa Bira ekimena Irunera iritsi zen apirilaren 20an. Iparra Hegoa elkarteak bultzatutako ekimenak Euskal Herria eta diaspora elkartzea du helburu. “Bizi gira... kutxa bira” lelopean, ekimena 72 herrietatik igaroko da Segurara iritsi aurretik.

Kutxa Bira ekimena Argentinako Patagoniako ipar-ekialdean dagoen Viedma hiritik abiatu zen martxoaren 20an. Ekimenak Diasporatik Euskal Herrira salto egin ostean, Kutxa Biraren ibilbidea Seguran amaituko da maiatzaren 30ean. Egitasmoaren antolatzaileek nabarmendu dutenez, Patagonian hasiz, ekimenaren barnean euskal diasporari ahotsa eman nahi izan zaio. Izan ere, ekimenaren bultzatzailea Iparra Hegoa elkartea da, 25 urtez euskal nortasuna, euskararekiko atxikimendua eta herri izatearen kontzientzia pizteko konpromisoari eutsi dion elkartea.

Bidaia luze horren erdian, egitasmoa apirilaren 20an arratsaldeko 19:00etan iritsi zen Irunera eta San Juan plazan Irungo AEK eta Irungo Harrera Sareko kideek ongietorri beroa egin zioten. Irunen geldialdia egin ostean, kutxa Hondarribira pasa zen apirilaren 21ean.

Ametsen kutxa

Egitasmoaren protagonista nagusia egurrezko kutxa bat da, Eneko Bachilerrek eta Nagore Zalduaranek diseinatua eta eraikia izan dena. Herriz herri igaro ostean, euskal amets eta nahiak biltzeko helburua du. Kutxaren barnean Euskal Herri osoari zuzendutako manifestua gordeta dago, egitasmoaren geldialdi bakoitzean irakurriko dena. Horrez gain, Kutxa Birak egurrezko kutxan herri bakoitzak helarazitako aldarrikapen mezuak bilduko ditu, hurrengo herriari zuzendutako gonbidapen mezuaz gainera.

Irunen apirilaren 20an egindako ekitaldian AEK eta Irungo Harrera Sareko kideak izan ziren protagonista nagusiak. “Mugak gaindituz euskararen herria, harrera herria” leloan oinarriturik antolatu zen Irunen Kutxa Bira ekimenaren harrera ekitaldia. Ekitaldiaren hasieran zurezko kutxaren barnean gordetako eta Amets Arzallusek idatzitako mezua irakurri zen plazan bildutakoen aurrean. Herriz herri zabaldutako mezuaren irakurketaren ostean, ametsak idazteko ordua iritsi zen. Horretarako antolatzaileek plaza erdian arbel zuri erraldoi bat kokatu zuten eta bertaratutakoei errotulagailuak eskaini zizkieten horma hutsean euskara, euskal nortasuna eta Euskal Herriarekin loturik nahi zutena idazteko aukera izan zezaten. AEK eta Irungo Harrera Sareko kideak izan ziren haien mezuak idazten lehenak eta minutu batzuen buruan hutsik zegoen panela hiritarren amets, ideia eta desioekin bete zen.

Ekitaldia amaitu aurretik, Beñat Altzagak AEK-ko ordezkariak Irungo hiriaren aldarrikapen mezua irakurri zuen: “Mugak dauden lekuan zubiak baleude, denok bat eginda bageunde, batetik bestera joateko aske bagina, euskara bihotzetik ezpainetara zabalduko bagenu, munduko beste hizkuntzekin aberastuko balitz, hemengoak eta hangoak bereiziko ez bagenitu, gure Euskal Herria denona balitz, geurera datozenei harrera duina egingo bagenie, ez geundeke gaur hemen. Gaur ametsak egia bihurtzeko etorri gara, beraz, eraiki ditzagun zubiak, euskararekin eta beste doinuekin osa dezagun sinfoniarik ederrena. Ez dago ez pertsona ez hizkuntza ilegalik. Inor ez da inor baino gehiago. Poza izan dadila denon poza”.

Ekintza puntuala

Kutxa Bira ekimenaren xedea osasun-krisiaren eragina arintzea da. Izan ere, birusaren zabalpena ekiditeko neurrien ondorioz, Korrika eta beste ekimen batzuk ezeztatu, atzeratu edo modu oso mugatuan egin behar izan dira. Antolakuntzako kideek nabarmendu dutenez, egoerarengatik bertan behera gelditu diren ekimenak “ordezka ezinak” diren arren, euskal nortasuna, euskararekiko atxikimendua eta herri izaeraren kontzientzia sendotzen duten egitasmoak sustatzea beharrezkoa dela uste dute. Dena den, Iparra Hegoa elkarteak adierazi duenez, ekimena ez da urteetan irauteko asmoarekin jaio, osasun krisialdiaren testuinguruan jaio baita. Beraz, helburua behin bakarrik egitea da.

“Mugak gaindituz euskararen herria, harrera herria”

Bidasoa ibaiaren ertza migratzaileentzako hilerri bihurtzearen aurka agertu dira hiritarrak

Apirilaren 18an emakume batek gizon baten gorpua urkatuta aurkitu zuen Irungo Azken Portu auzoan. Ikerketaren amaitzen arabera, hildakoa jatorri eritrearrekoa da eta, printzipioz, hirian errotuta zegoela frogatzen duten egitaterik aurkitu ez denez, Irungo Harrera Sareak iragaitzazko migratzaile bat izan zitekeela ondorioztatu du. Igarobideko migratzailea dela baieztatuz gero, mugaren sarbidean hildako lehen migratzailea litzateke.

Martxoaren 6an Eusko Jaurlaritzak kontingentzia plana aktibatu zuen, Irunera egun bakar baten ehun bat migratzaile iritsi ostean. Orduan 60 pertsonarentzako edukiera duen eta iragaitzazko migratzaileak jasotzeko prestatu dagoen Hilanderas aterpetxea txiki gelditu zen eta Irungo erromesen aterpetxea eta Hondarribiko aterpetxea arreta-baliabide gisa egokitu ziren. Azken hilabeteetan Frantziako poliziak mugan kontrolak 24 orduz indartzearekin, migratzaileentzat Bidaoa ibaia zeharkatzea ia ezinezko bihurtu da eta Irunen blokeatuta gelditzen dira.

Irungo Ertzaintzaren komisaria apirilaren 18an goizeko 8:30etan emakume batek aurkatuta aurkitu zuen gizonaren heriotza ikerketaz arduratzen ari da. Gorpua Irungo Azken Portu kiroldegiaren atzeko aldean aurkitu zuen emakumeak, Bidasoa ibaiaren ertzetik hurbil. Gertatutakoa argitzeko helburuarekin, Irungo Harrera Sareak “iturri kontrastatuen bidez” jakin duenez gizona eritrear jatorrikoa da, gaztea eta ez dago Irunen errolduturik.

Orain arte bildutako datuen arabera, IHSak adierazi duenez “jatorriagatik, gutxi gorabeherako adinagatik eta inguru honetan errotuta ez egoteagatik” hildakoa transitozko migratzailea dela uste da. Izan ere, gizonak hiriarekin errotze harremanik zuen argitzeko, Bidasoaldeko HHIn, helduen hezkuntza iraunkorreko zentroarekin loturarik ez zuela ikusi da. Era berean, erregistroetako datuek erakutsi dutenez, ez du Udalarena ez den beste harrera-baliabiderik erabili. Bizileku-agiririk ez izateaz gainera, Irungo Eritreako komunitateak ez du ezagutzen. Beraz, gauzak horrela, Irungo Harrera Sareak “transitozko migratzaile” bat denaren hipotesiarekin lanean ari da.

Erantzukizun partekatua

Gertakaria eta, oro har, migratzaileek bizi duten egoera salatzeko Irungo Harrera Sareak kontzentrazioa antolatu zuen apirilaren 22an. Arratsaldeko 18:00etan Irungo San Juan plazan egindako elkarretaratzean ustezko transitozko migratzailearen heriotza salatzeaz gainera, zirkulazio askatasuna eta Euskal Herria harrera herria dela defendatu zuten bertaratutakoek. Bertan bildutakoen artean banatutako komunikatuan irakur zitekeenez, administrazioek iragaitzazko migratzaileak modu murriztaile eta kaltegarrian hartzen dituztela salatu du sareak. Horrez gain, Harrera Sareak salatu duenez, oraindik ere betetzen ez diren guneak hutsik egon arren, gaua kalean igarotzen duten migratzaileak daudela deitoratu du.

Bestetik, Irungo Harrera Saretik Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udalari hildako pertsonarekin zer gertatu den argitzea exijitu diete, eta haren identifikazioa, familiarekin komunikazioa eta gorpuaren aberriratzea erraztea eskatuz. Hain zuzen ere, giza eskubideen eta pertsonen alde lan egitea eskatu diete, hau da, “muga arrazista” irekitzeko.

Aurretik ohartarazitako arrisku egoera

Irungo Harrera Sarearen hipotesiak egiaztatuko balira eta hildakoa transitozko migratzailea balitz, Bidasoko mugan azken urteetan lehen hildako migratzailea izango litzateke. Izan ere, Harrera Sareak gertakari honen aurretik zabaldutako beste komunikatu batean azaltzen zuenez, 60-70ko hamarkadetan Portugaletik zetozen eta muga leku beretik zeharkatzen saiatu ziren hainbat migratzaile hil ziren. Martxoaren erdialdean argitaratutako hartan Irungo Harrera Sareak migratzaileek mugen itxieraren ondorioz eskualdean bizi duten egoera salatzen zuen.

Frantziako estatuaren mugen itxieraren aurrean, migratzaile asko eta asko, etsipenak bultzatuta, Bidasoa ibaia igerian zeharkatzen saiatzen direla azaltzen zuen sareak. Egoera horrek migratzaileen bizitza arrisku larrian jartzen zuela salatu zuen IHSak, lesio eta nekea dela eta jada muga igerian gurutzatzen ahalegindu ziren migratzaileak artatuak izan direla azalduz. Zehazki, Harrera Sareak jakin duenez, martxoaren 18aren aurreko egunetan Bidasoa ibaiaren ertzean bi migratzaile gazte erreskatatuak izan ziren. Orduan Irungo Harrera Sareak erakundeei neurriak hartzea eskatu zien, “Euskal Herria hilerri bihur ez dadin bere bizitza hobetu edo salbatu nahi dutenentzat”.

Bigarren urtez jarraian Opila Egun ezohikoa bizi izan du Irunek

2020ko apirilaren 25eko Opila Egunaren ospakizuna pandemiarengatik guztiz baldintzatuta egon zen. Urtebete beranduago, jada etxean konfinatuta egon ez arren, San Marko eguna ohikotasunez ospatzea ezinezkoa izan da beste urte batez irundarrentzat. Izan ere, pandemiaren zabalpena ekiditeko segurtasun neurriak ez dira Opilaren Eguneko ohiturekin bateragarriak.

2021eko Opila Egun ezohikoa bizi izan dute irundarrek. Apirilaren 25eko bedeinkapen jendetsuen ordez, hiriko elizaren barrualde eta kanpoaldeak hutsik gelditu dira beste urte batez. Segurtasun neurri guztiak beteko zirela ziurtatzeko, bedeinkapen San Martzial ermitaren inguruko zelaietara opilak dastatzeko hiritar gutxi batzuk hurbildu ziren arren, ezin daiteke alderatu beste urteetan egun horretan mendian hurbildu ohi diren familia eta lagun taldeekin.

Ohituraren etenaldiak

Auñamendi entziklopedian argitaratutako artikuluan azaltzen denez, antzina San Marko egunean prozesio bat egiten zen herri inguruko ermitak bisitatzeko eta, Irunen kasuan, Arteaga, San Martzial eta San Anton ermitetara iristen zen. Apaiz eta agintariak buru zituzten prozesio horien helburua lurrak bedeinkatzea zen. Ostean, erromesek indarrak hartu ostean, erromerian dantza eginez hirira itzultzen ziren.

Euskal entziklopedian publikatutako artikuluan argitaratzen denez, San Marko eta Opilaren Egunaren ospakizuna historian Irunen, Covid-19ak eragindako pandemia iritsi aurretik, gutxienez bitan bertan behera gelditu da. Lehen etenaldi edo aldaketa 1787ko apirilaren 22an gertatu zen Iruñeko Apezpikuak Elizbarruti guztian San Marko letanietan ospatutako prozesio guztiak bertan behera uztera behartzen zuen gutuna bidaltzearekin batera. Urte hartan erromesaldia Santa Elenako ermitara egin zela azaltzen da entziklopedian.

Bigarren aldaketa, berriz, 1816. urtean gertatu zen, euriteek prozesioa atzeratzea eragin ondoren. Horren ostean, Karlistaldiak izan ziren, dokumentazio faltak agerian uzten duenez, San Marko eguneko prozesioen bigarren etenaren arrazoia. Gatazka zibilaren ostean prozesioa behin bakarrik ospatu izan zen berriro, zehazki, 1879. urtean eta hortik aurrera San Marko eguneko prozesioak behin betiko desagertu ziren.

Prozesioa galdu arren, lurraren bedeinkatzea, bazkaria eta erromeria ospatzearen ohituri eutsi zitzaion. Fededunak lurren bedeinkatzea eta erromeria ospatzen jarraitu zuten herri inguruko landetan. Hara, hamaiketako edo bazkaria eraman ohi zuten, gehienetan taloa (artoz eginiko ogia, egositako bi arrautzez lagundua). Tamalez, denboraren poderioz lurren bedeinkapena ere desagertu egin zen. Beraz, gaur San Marko eguneko ekintzak herri inguruko lurretan opilen bedeinkapenean eta horren dastaketan datza batik bat, askotan erromerietako doinuez lagundurik.

Opilaren jatorria

Kasu honetan pandemiak Opila Eguneko ohiturak moldarazi ostean, bedeinkapen, erromeria eta lagunekin partekatutako hamaiketakorik gabe bada ere, ohituraren jatorria eta bilakaera errepasatzeko une aproposa izan daiteke honakoa. Izan ere, opila izenez ezagutzen den jakiaren jatorria prozesioan parte hartzen zuten erromesen hamaiketako edo bazkarian dago. Prozesioa egiten zen garaiko dokumentuek erakutsi bezala, enpanada antzeko zerbait jan ohi zen apirilaren 25eko ospakizunetan. Opiletik oso gertu dagoen elikagaia izanik, egun opila izenez ezagutzen denaren jatorria azal dezake. Prozesioetan parte hartzen zuten gazteei arrautza egosi eta ogi puska bat ematen baitzitzaien.

Auñamendi entziklopedian argitaratutako idatzian azaltzen denez, "tradizioz, opila, labean egindako torta bat izan da, arrautza egosiak gainean edo txorizo zati bat barrualdean zuela. Herriaren arabera jaki horren aldaera ezberdinek denboran iraun dute eta kasu gehienetan torta horiek arrautzekin apaintzen dira. Irunen, konkretuki, kolore arrosekoa arrautzak erabiltzen dira. Opiletako arrautzen kolore deigarria azaltzen duten teoriak ugariak dira.

Azalpen hedatuenetako batek dionez, arrautzak kolore arrosekoak eta egungo opilak bizkotxoz eginda izatearen arrazoia kasualitatea da, Elgorriaga gozodendan Madrilgo amabitxi batek egindako enkargu bereziaren ondorioa. Arrautzak tindatzeko garrapiñatuekin batera egosi zituzten eta opilen ohorea erabaki zen. Beste teoria baten arabera arrautzen kolore bereziaren arrazoia Gerra Zibilaren ostean Irunen kokatutako okin katalan baten eraginean dago, Katalunian famatuak diren "Monas de Pascua" delakoak imitatzen saiatu ostean.

Jatorri eta bilakaeraren gaineko teoria desberdinak eta anitzak izan arren, argi dago egoera bere onera itzuli bezain laster, irundarrak amabitxi eta semebitxi zein alababitxiekin opilaren inguruan elkartzen ditun ohiturari jarraipena emateko irrikan egongo direla.

Hamaika bezeroen konfiantzan oinarritzen da eraberritze integral eta partzialetarako soluzioak eskaintzeko

Hamaika enpresa Hondarribiko San Markos plazako 1. zenbakiko behealdetik interiorismo zerbitzuak ematen ditu. Barne-diseinuaren sektorean 30 urteko esperientzia du eta, besteak beste, eraberritze partzialak edo integralak gauzatzeaz arduratzen dira.

Hamaikan eraberritzeak egiten dituzue. Nolakoa da prozesua?

Hamaikan eraberritze integral edo partzialak egiten ditugu bezeroen beharren arabera. Lehenik eta behin, pertsonak ezagutzea gustatzen zaigu, eta, jakina, eraberritu beharreko espazioa in situ bisitatzea, neurriak eta argazkiak hartzeko eta behin betiko proposamenean lan egin ahal izateko behar den informazio guztia lortzeko.

Eraberritze lan bat egiteko orduan, zer da zuentzat garrantzitsuena?

Guretzat, eraberritze on bat egiteko gakoa bezeroen benetako beharrak ezagutzea da, espazioaren banaketa egokiena egin ahal izateko. Horrela, bezeroaren etxebizitzan bizitza erosoagoa eta zoriontsuagoa izatea lortuko dugu. Zure etxean nola bizi nahi duzun argi daukazunean, errazagoa da eraberritzea gauzatzea. Beraz, proiektuak horretarako aukera ematen badu, hainbat distribuzio aukerekin lan egiten dugu.

Konfinamenduan eta etxean igarotako hilabete luzeen ostean, espazioak eraberritzeko eta etxerako ekipamendua hobetzeko eskaria hazi dela nabaritu duzue?

Etxean denbora gehiago egoteak gure etxeen gabeziak eta beharrak ikusarazi dizkigu, eta, beraz, espazioak eraberritzeko eta etxerako ekipamenduri dagokionez eskaria handitu dela nabaritu dugu.

Horretarako, inguruko goi mailako hornitzaileekin lan egiten duzue, ezta?

Printzipioz tokiko material-hornitzaileekin lan egiten dugu zeramikak, zura eta pinturak eskuratzeko. Horrez gain, altzari, argiztapen eta ehungintzarekin loturiko materialei dagokienez, estatu mailako hornitzaileak dauzkagu.

Erraza al da beti sektoreko azken joeren berri izatea?

Gure hornitzaileen bidez eguneratuta daukagu merkaturatu diren azken materialen eta akaberen informazioa. Oso garrantzitsua da azoketara joatea, merkatua nola aldatzen den eta gorabidean dauden dekorazio-joerak zein diren ikusi eta informazioa eguneratuta eduki ahal izateko.

Nola moldatzen zarete etxe bakoitzari ukitu berezia emateko?

Lehenik eta behin, espazio bakoitza desberdina da eta pertsona bakoitzak gustu eta behar bereziak ditu. Beraz, eraberritze eta etxebizitza bakoitza berezia eta besteekiko desberdina izatea erraza da.

Eraberritzea egiten den bitartean, bezeroei aldi baterako alokairu-irtenbiderik eskaintzen diezue?

Bai, bezeroek behar badute, higiezinen agentziekin lankidetzan aritzen gara aldi baterako alokairua aurkitzen laguntzeko.

Zuen lana konfiantzan eta hurbiltasunean oinarritzen da?

Jakina, guk badakigu pertsonen bizitza hobetzearren lan egiten dugula eta "haien etxeak inbaditzen ditugula". Beraz, guretzat konfiantza ezinbestekoa da gure lana errazteko. Bezeroek gugan konfiantza dutenean errazagoa izaten da, eta horrek lana asko errazten digu.

Zein da zuen bereizgarria, sektoreko beste enpresekin alderatuta?

Gure desberdintasuna da bezeroei "neurrira egindako jantziak" egiten dizkiegula da, hau da, bezero bakoitzaren beharretara egokitzen garela, bai logela bat altzariz hornitu eta apaintzeko, bai etxebizitza oso bat eraberritzeko. Eraberritzearen azterketa osoa egiten dugu, obra egiteko beharrezkoak diren gremioekin elkarlanean. Eraberritzea aurrera eramateko beharrezko baimenak kudeatzeaz ere ardura- tzen gara. Gainera, altzari eta dekorazio-osagarri ugari eskaintzen ditugu aukeran, espazioa azken xehetasunetaraino jantzteko. Gure bezeroei, behar izanez gero, altzari- edo etxe-aldaketako zerbitzua ere ematen diegu. Hain zuzen ere, gure bezeroeei eraberritzeen gaineko erabakiak erraztu nahi dizkiegu. Horrela, behin Hamaikarekin etxea eraberritzea erabaki dutenean, gu arduratzen gara prozesu guztiaz, bezeroak kezkatu ez daitezen, etxe aldaketa lasai hartu eta zoriontsu bizitzeko gogoak izan ditzaten.

Informazio gehiagorako:

Telefono zenbakia: 943 64 64 12.

Webgunea: www.hamaika.com

Instagram-en: @hamaika_interiorismo

HAMAIKA

Iñigo Ariztimuño, Real Unioneko jokalaria:

“Irundarra izanik, harrotasunez jaso dut nire hiriko taldean debutatzeko aukera”

Iñigo Ariztimuño aurtengo denboraldian Real Unioneko lehen taldearekin debutatu duen jokalari irundarra da. Behe mailetako jokalari zenean noizbait hiriko lehen taldearekin jokatzea amesten zuen arren, urrutiegi ikusten zuen. Aitor Zulaika entrenatzaileak bere alde egindako apustuak eta lehen taldeko kideen esperientziak ametsa errealitate bihurtzen lagundu diotela azaldu du Ariztimuñok.

Harrobitik zatoz eta Irundarra izanik, zer sentitzen duzu Real Unionekin debutatu ostean?
Lehenik eta behin harrotasuna. Irundarra izanik, harrotasunez jasotzen da zure hiriko taldean debutatzeko aukera izatea. Bestetik, poz itzela, lan asko egin ostean fruituak jasotzeko ordua iristen denean poztasuna eragiten dizu.

Askorentzat ametsa lehenengo mailan jokatzea izango da. Zuretzat, ordea, Real Unionen jokatzea ametsa zen?
Bai noski, Irungoa naizenez, nahiz eta Irunen afizio gutxi izan, Real Unionen jokatzen dugu guztiok badakigu honeraino iristea amets bat dela eta poztasunez amets bat bete dudala esan dezaket.

Pandemia garai zailagoa bada ere, berriro ikusleak erakartzen hasi zaretela nabaritu duzue?
Bai, taldea oso denboraldi ona egiten ari dela ikusi da eta jendea mugitzen hasi da. Harrera onak egin dizkigute, hortaz, oso pozik gaude. Emaitzei dagokienez, azken bi urteak ez dira klubaren onenak izan, baina aurten gauzak guztiz aldatu dira. Jendeak taldearen lorpenak eskertzen dizkigu eta zelaira sartzea ezinezkoa den arren, sarreran harrera politak egiten dizkigute.

Denboraldi hasieran entrenatzen hasi zinenean, taldea maila honetara iritsiko zela espero zenuen?
Bai, egia esan. Denboraldiaurrean etorri nintzen partidu bakarra jokatzeko eta aldaketa asko ikusi nituen. Fitxaketa berri asko egin ziren eta maila ona zeukatela ikusi nuen. Zelaian denborak erakutsi du taldeak asko hobeto duela eta gauzak ondo egin dituela.

Nolakoa izan da taldera batzeko prozesua?
Denboraldiaurrean partidu bakarra jokatu nuen taldearekin. Ataldearekin, abenduan entrenatzen hasi orduko lesionatu nintzen eta. Itzuleran klubeko taldeen arteko partidua jokatu nuen eta oso ondo moldatu nintzenez Aitorren konfiantza osoa irabazi nuen eta, hortik aurrera, egunero taldearekin entrenatzen hasi nintzen. Lehenengo deialdia Barakaldokoa izan zen eta taldearekin denbora asko eman ostean, azkenean zelaira sartzea lortu dut.

Nola jaso zenuen lehen taldearekin jokatzeko deia?
Hasiera batean ez zegoen aurreikusita nik lehen partidu hura jokatu behar nuenik. Norbait lesionatu zen eta ohean nengoenean deia jaso nuen. Azkar batean etorri behar izan nuen PCR proba egiteko. Deia poz handiarekin hartu nuen eta hortik aurrera entrenamenduetan dena ematen ahalegindu naiz.

Zein postutan jokatzen duzu normalean?
Beti jokalari balioaniztuna izan naizela esango nuke, nahiz eta gehienetan hegalean jokatu. Entrenamenduak hegalean eta zentroan egin ditut, beraz, entrenatzaileak erabakitzen duen posiziora moldatzen naiz.

Zuk zeuk hobekuntza nabaritu duzu Aitor Zulaika eta lehen taldearekin entrenatuta?
Bai, asko nabaritzen da. Lehen entrenamendura iritsi nintzenean mailarekin zur eta lur gelditu nintzen. Aldaketak hobetzen jarraitzeko balio izan didala konturatu naiz eta, horretarako, gainontzeko jokalari onen laguntza oso baliagarria izan da.

Zu harrobiko jokalaria izanda, nolakoa da taldearen barnean maila altuko jokalariekin duzun harremana?
Nahiko normala dela esango nuke. Azken finean, beste jokalari baten antzera tratatzen naute. Beharrezkoa denean exijitzen didate eta gauzak ondo egiten ditudanean esaten didate. Argi dago haien ibilbidea gainontzeko jokalarientzat eredu direla, beraz, ikasteko oso lagungarriak dira.

Bigarren taldean zaudetenean, gauzak ondo eginez gero, lehen taldera salto egiteko aukera ikusten duzue?
Bai, bai. Gutxi gorabehera harrobiko bost jokalari gara egunero lehen taldearekin entrenatzen dugunok, baina entrenatzaileak bigarren taldeko jokalari gehiagori lehen taldearekin entrenatzeko aukera eman die eta espero dezakegu kertzekoa da.

Irundarrak lehen taldera igotzeak hirian zaletasuna berreskuratzen lagunduko duela uste duzu?
Bai, izan liteke. Azkenean jokalarien kuadrilla edo ezagunak erakartzen laguntzen du. Dena den, taldeak egun duen maila ikusita, jendea berdin berdin etorriko zela uste dut.

Igoera fasean sartzea ezinezkoa izan bezen ere, hurrengo hiru jardunaldiak irabazi zenituzten?
Kalkuluak eginda eta entrenatzaileak horrela transmititu digu, oraindik ez dagoela bermatuta datorren urtean taldeak Lehen Federazio Mailan jokatuko duenik. Azkenaldian lortutako emaitza onek helburura hurbiltzen lagundu gaituzte.

Jokatzeko dauden neurketetan zer hobetu beharko luke taldeak?
Orain arte egindako lana mantentzearekin nahikoa izango dela uste dut. Bide beretik jarraitu behar dugu hiru partiduetan emaitza onenak lortzeko. Bederatzi puntu gehiagorekin amaitzea lortzen badugu, ahal den moduan ospatuko dugu.

Elene Sagardia, mahai-tenis jokalaria:

“Nire lehen helburua gure taldea ohorezko mailan mantentzea litzateke”

Argazkia: Estudio Gover

Elene Sagardia Gipuzkoako Mahai-tenis Txapelketa Absolutuan garaile izan da. Kirolari irundarrak Leka Enea klubean hasi zuen bere ibilbidea eta orain Atletico San Sebastian taldean jokatzen du. Bere hurrengo erronkak taldea ohorezko mailan mantentzea eta Espainiako Txapelketan garaipenarengatik borrokatzea dela azaldu du Elene Sagardiak.

Nondik datorkizu mahai-tenisarekiko zaletasuna?
Txikitatik frontoian jolastea edo erraketarekin ibiltzea asko gustatzen zitzaidan. Txikitan tenisean jokatzen nuen eta uda batean amak mahai-tenisa probatzea proposatu zidan. Bi asteko ikastaro bat egitea erabaki nuen, horrela, kirola gustoko nuen edo nola moldatzen nintzen ikusteko. Ikastaroa amaitu nuenean entrenatzaileak nire gurasoekin hitz egin zuen, nire jokatzeko modua gustuko zuela esan zien. Klubean jarraitu nahi nuen galdetu zidatenean baietz esan nuen eta horrela hasi zen dena.

Ordutik hainbat mahai-tenis klubetan aritu zara, ezta?
Bai, Irungo Leka Enea klubean hasi nintzen 2014ean eta bertan jokatu nuen 2019. urtera arte. Justu orain dela bi urte, berriz, Atletico San Sebastian klubera joan nintzen.

Orain dela gutxi Gipuzkoako Txapelketa Absolutuan garaile izatea lortu duzu. Garaipena eskuratzea erraza izan da zuretzat?
Erraza ez, azken finean, pandemiarekin orain ez dugu lehen izan ohi genuen adina txapelketa. Lehen bezainbeste txapelketa jokatzen ez ditudala asko nabaritu dut eta zaila izan da berriro hastea. Beraz, horren txapelketa garrantzitsua irabazi izana pozgarria da.

Aurretik goi-mailako edo antzeko txapelketaren batean lehiatu zara?
Bai, gutxi gorabehera 4 urte daramatzat Espainiako lehenengo zortzien artean sailkatuta. Hortaz, Espainiako Selekzioarekin batera jokatu dut nazioarteko txapelketetan, Europan eta harago. Hortaz gain, Espainia maila eta bestelako txapelketak jokatu ditut.

Maila altuko txapelketetan ibili ostean, etxeko txapelketetan erosoago sentitzen zara?
Azken finean, egia da konfiantza gehiago ematen dizula. Maila altuko txapelketek esperientzia asko ematen dute.

Azken garaipenaren ostean, zeintzuk dira buruan dauzkazun hurrengo txapelketak?
Egia esan, ez dakit oso ondo zein izango den nire hurrengo txapelketa, izan ere, pandemia txapelketen egutegia hankaz gora jartzen ari da. Suposatzen da hemendik bi hilabetera Espainiako Txapelketa eta Espainiako Estatala jokatuko direla. Noski, Espainiako txapelketetan irabaztea gustatuko litzaidake, Europan jokatu ahal izateko, beraz, horretan saiatuko naiz.

Oraindik ere pandemia txapelketen egutegian aldaketa asko eragiten ari da?
Bai, gure kasuan, liga orain dela hilabete bat hasi zen eta orain hasi gara txapelketak berreskuratzen. Pixkanaka txapelketa gehiago antolatzen ari dira, baina kopurua asko murriztu da. Pandemiaren aurretik ia astebururo lehiatzera ohiturik nengoen, liga, txapelketa, Euskadiko Txapelketa eta bestelakoen artean, aurten, ordea, ezin izan dugu erritmo hori mantendu.

Konfinamenduaren ostean zure kirol errendimendua azkar berreskuratu duzula uste duzu?
Konfinamenduan entrenatzea ezinezkoa izan zen. Etxean bi hilabete eman genituen jokatu gabe. Entrenamenduetara itzuli nintzenean erritmoa hartzea kostatu zitzaidala nabaritu nuen, baina, bi edo hiru asteren ostean, aurreko maila berreskuratu nuela uste dut.

Zure teknika eta jokatzeko moduan zer hobetu nahiko zenuke emaitza hobeak lortzeko?
Bai, txapelketen aurretik lasaitzea asko kostatu izan zait beti. Izan ere, oso pertsona urduria naiz eta asko mugitzen naiz. Urte asko daramat jada mahai-tenisean jokatzen baina urduritasunek hor jarraitzen dute eta horiek kontrolatzen jakitea ikasteko daukat oraindik.

Zure entrenamendu errutina asko aldatu da pandemiaren ondorioz?
Adibidez, pandemiaren aurretik set bakoitzean alde batetik bestera aldatzen ginen. Orain, aldiz, partidu guztia alde berdinean jokatzen dugu.

Mahai-tenisean aurkarien arteko distantziak mantendu arren, protokolo zorrotzak jarraitzen dituzue?
Bai, horretarako orain baino gehiago jokalarien arteko distantzia errespetatzen saiatzen gara. Hortaz gain, entrenamenduetan pertsona kopurua murriztu da, lehen 20-25 pertsona batera entrenatzen zuten, orain, aldiz, gehienez 10-15 elkartzen gara.

Kirolari dagokionez, nola begiratzen du Elene Sagardiak etorkizunera?
Nire lehen helburua gure taldea ohorezko mailan mantentzea litzateke. Aurten pertsona berri bat fitxatzea ezinezkoa izan denez, etxekoak jokatzen ari gara. Taldea maila berean mantendu ahal izatea sekulakoa litzateke. Horrez gain, Espainiako Txapelketa irabaztea edo behintzat podiumean sartzea gustatuko litzaidake. Aurten horiek dira nire helburuak eta datorren urtean ikusiko dugu zer gertatzen den.

ola
SAGARDOTEGIA

Azken Portu inguruan Bidasoa ibaiaren ertza berreskuratzeko proiektua aurkeztu du udalak

Irungo Udalak urteak daramatza Bidasoa ibaiaren ibai-profila berreskuratzen. Behobiako eta Santiagoko zubien eremuak hobetzeaz gain, azken urteotan, jarduketak egin dira bidegorrietan (Real Union eta Pierre Lhande ibilbideak), Osinbiribil birnaturalizatu da eta Azken Portu eta Behobia artean pasabidea ireki da.

Hala ere, ibaiaren ertza berreskuratu behar da hiri-inguruko parkearen eta pasabidearen hasieraren artean. Alde horretan, oraindik ere bi jarduera ekonomiko garrantzitsu daude. Bata Brioche Pasquier-Recondo enpresa; bestea, auto-kontzesionario bat. Hirigintza arloak hilabeteak daramatza lanean bi eremuak berreskuratzeko kudeaketan.

Auto-kontzesionarioaren jarduerari dagokionez, Miguel Ángel Páez Hirigintzako ordezkariak laster albiste onak izatea espero du: "Covidaren krisiaren ondorioz, gauzak gustatuko litzaigukeena baino astiroago joan dira, baina espero dugu laster akordio bat lortu ahal izango dugula lekuz aldatu eta hiriak hain eremu baliotsua irabazteko".

Hain zuzen ere, apirileko osoko bilkuran kreditu aldaketa bat onartzea proposatuko da, lur horiek erosi ahal izateko. Hirigintzako ordezkariak azaldu duenez, Plan Orokorrak ekipamendu publikorako lursail gisa jasotzen du eremu hori.

Erabilera-aldaketak

Beste puntua Brioche Pasquier-Recondo lantegia da, Artia errekaren, Bidasoa ibaiaren, Juan Thalamas Labandibar kalearen eta Azken Portu kiroldegiaren arteko triangeluan dagoena. Hiri-lurzoruko espazio bat da, HAPOk industria-jardueratzat kalifikatua, lehen ibai-lerroan, eta 17.000 m2 baino gehiago ditu.

Miguel Angel Páez ordezkariak azaldu duenez, enpresak aspaldi jakinarazi zion Udalari erabakia zutela Kateako lantegia handitu eta ekoizpen-lerroa bertan bil-tzea. "Une horretan, gaur egun industriala eta hain sentikorra den hiri-eremu batean dagoen lurzoru hori berreskura- tzeko aukera ikusi genuen, eremu horretara hobeto egokitzen diren beste erabilera batzuetarako egokitzeko, eta, bide batez, indarrean dagoen HAPOren gomendioa betetzeko, hau da, jarduera industria-eremuetan kon- tzentratu eta hiri-saretik desagerrarazteko". Hirigintzako ordezkariaren hitzetan ekintza horrek egungo eraikun- tza industrialak kentzeko aukera emango luke, Bidasoa ibaiaren ezkerraldean eta Artia errekan metro gehiago berreskuratzeko. Era berean, hiriak ibaiertzeko pasealeku handiagoa eta hobea irabaziko luke, eta errekaren paraleloan doan kamioien sarbidea kenduko litzateke.

Helburu horrekin, hitzarmen bat landu da, eta apirileko osoko bilkuran aurkeztuko da. Hitzarmenak Bidasoa ibaiaren eta Artiako ubidearen ertzak naturalizatzea eta ingurumena lehengoratzea ahalbidetuko luke, igarobide-eremuak babestu eta gutxienez 20 metrokoak izango dira. Industria-erabileraren ordez, ingurunearekin bat datozen bizitegi-erabilerara bideratuko da, %40 etxebizitza babestuetarako erabiliko delarik. Era berean, klima-aldaketaren aldagaia kontuan hartuz, urpean geratu eta ertzak higatzeko arriskua kontutan hartuko da. Gainera, eremuaren barruan tokiko sistemen beste zuzkidura publiko batzuk betetzea, hala nola berdeguneak, kirol-ekipamenduak, aparkalekuak, etab.

Azken Portu eremuko 17.770 m2 guztiak berreskuratzeaz gain, Páezek azaldu duenez, "eremua bere ingurune osoan sar- tzeko aukera ahalbidetzen da, Bidasoa ibaiaren ibaiertza berreskuratzeko helburuak partekatzeko, hain zuzen, Osinbiribil eta Azken Portu eremuetan Behobiaraino egin dugun bezala. Hau da, Bidasoa ibaiaren ertza osorik berreskuratzen dugu horrela, Irunek ibai-profilaz gozatu dezan eta berriz ibaira begiratu dezan".

Proposatutako antolamenduak paisaia egokia bermatzen du, kontuan hartuta zer espazio sentikorrean dagoen den eta etorkizuneko bizitegi-eraikinen izango duten eskala bolumetrikoa bat etorriko dela eremuarekin. Lusail horren kalifikazio berriak jarduera lekualdatzea erraztuko du, eta, horrela, indarrean dagoen Plan Orokorrean ezarritako irizpideei erantzun nahi izan diote, hots, ekoizpen-erabilerak bizitegi-bilbetik kanpo dauden eremu espezifikoetan kontzentratzeari. Horrela, Bidasoa ibaiaren ondoan industria-erabilera berriak ezartzea eragotziko da.

Erreka birnaturalizatzea

Bestalde, partzela horren ondoan, Artia errekaren bokalearen azken zatia dago, Bidasoa ibaian, Estatuaren titulartasunekoa. Birnaturalizatzeko dagoen zati bakarra da, Juan Thalamas Labandibar eta Pierre Lhande artean dagoena.

Udalak naturalizazio-proiektu bat aurkeztu zion Ministerioari duela urte batzuk, eta berriro mahai gainean jarri nahi izan dute. Datozen egunetan, Trantsizio Ekologikorako Ministerioko arduradunekin bilduko da Udala, proiektua berreskuratze aldera.

Beste Alde, Ministerioak Bidasoa ibaiaren ertza lehengoratzeko eta naturalizatzeko lanen hasiera baieztatzeko zain dago Udala, Juan Thalamas Labandibar 43. zenbakitik (kontzesionarioa) Behobiaraino iristen den oinezko eta bizikletentzako pasabidearen hasierara bitartean.

ELATZETA HH

Denbora-pasak

7 hitz: Hegaztiak

	U	W	M	B	U	T	W	W	M	M	X	H	X	Z
	U	F	M	E	B	Y	R	F	B	F	B	G	O	T
	T	W	T	K	W	O	T	W	R	E	D	Q	R	G
	Y	W	V	W	C	A	U	U	D	J	L	M	H	V
	B	C	V	I	N	U	Y	D	V	S	B	E	U	L
	X	F	K	U	W	O	P	T	N	N	E	O	D	Y
	E	K	U	H	I	A	Y	T	A	N	L	A	N	Y
	J	H	B	C	V	Z	S	H	F	H	A	H	X	J
	I	U	Q	H	O	N	T	Z	J	J	T	Q	Z	J
	P	P	U	T	R	E	Z	U	S	O	Z	I	O	G
	E	Z	J	G	V	B	U	V	A	G	V	J	O	M
	O	O	G	A	T	T	P	K	L	F	N	R	L	N
	B	Z	C	B	O	B	E	L	T	X	A	R	G	A
	Y	O	I	E	T	C	G	B	Y	A	K	L	V	M

Putre, belatz, beltxarga, hontz, uso, bele, zozo.

	9				6	1		
	7					9	3	
1	8	5			9	6		
				4			9	
			5		3	4	2	1
7			8	9		5		
					8	3		
	3		9	5				
4			3					6

ALARDERAKO KINTO-ZERRENDA

Doinua: Intsumisoarena Jon Sarasua, Oskorri

Egilea: Xabier Isasi Balanzategi

1
Aizak hi, gixon, esan
zein duk hire dema?
zer daukak nesken aurka?
non zegok problema?
tradizioa dela
hori duk dilema?
oso laburra daukak
ulermen eskema

2
Jairik gabe zeukagu
aurtengo agenda
presta ezak hurrengo
Alarde-legenda
ezak baztertu inoiz
sexu edo enda
hemen bidaltzen diat
kintoen zerrenda

3
Lore, Nerea, Lisa,
Jazinta, Alaia,
Lurdes, Dorleta, Bea,
Ramoni, Amaia,
Edurne, Teodora,
Sekundina, Laia
Bibiñe, Dorotea,
Luisa eta Maia

4
Sebastiana, Señe,
Sua, Adriana,
Itxaropena, Iris,
Itxaso, Diana,
Lola, Garbiñe, Laura,
Juli, Kontxi, Juana,
Begoña, Isturitze,
June eta Ana

5
Koldobike, Regina,
Maribi, Aintzane,
Nieves, Adelaida,
Santa, Agurtzane,
Guadalupe, Estitxu,
Karlota, Gorane,
Gloria, Elixabet,
Leire eta Gixane

6
Josebe, Markeliñe,
Zezili, Sagrari,
Kontxesi, Jenobeba,
Maurizia, Mari,
Katalina, Ostaixka,
Onintza, Nahikari,
Frantziska, Petronila,
Ninbe eta Mirari

7
Kristina, Karolina,
Julia, Agate,
Nahia, Itziar, Maddi,
Idoia, Arrate,
Koro, Arritokieta,
Teresa, Eunate,
Kasilda, Katalina,
Xole eta Olate

8
Mafalda, Susanita,
Ilargi, Goizeder,
Serafina, Silvia,
Eguskiñe, Eider,
Anboto, Anamari,
Engrazia, Maider,
Soledad, Severina,
Maite eta Maiteder

9
Lierni, Rosario,
Mila, Miren, Rakel,
Maialen, Mikaela,
Zuberoa, Mabel,
Zuriñe, Emilia,
Uxue, Maribel,
neska, andre guztiak
AURRERA JAIZKIBEL

10
Giza eskubideak
ei dira denonak
nori dio axola
galtzak edo gonak
andereak direla,
direla gizonak
baldin eta guztiak
bagara pertsonak

EGUZKITZA LH5

Konfinamendu garaian Eguzkitza eskolako 5.mailako ikasleek egindako bertsoak
(Gaur egun ikasle hauek 6.mailan daude)

Gaia: HARRY POTTERREN FILMETAKO PERTSONAIAK: KONFINATUAK
Doinua: Ama begira ezazu

LUNA LOVEGOOD

Birus batengatikan
Gure etxean gaude
Ta Hogwarts ikastolan
Berdin berdin daude

Han Luna izeneko
Ikasgela dago
Eta bere ikastolan
gordeta zeharo

Gaur Luna pozik dago
Bigarren fasean
Animaliak zaintzen
Dago Luna bertan

Egileak: Maren, Odei, Unai eta Vega

SNAPE

Amapa irakaslea
Jira eta buelta
Aurten Howartsen dena
Esberdina da eta

Jenio txarra eta
Tunika iluntuta
Howartsen gelditu da
Snape giltzatuta

Aspertuta dagoenez
Badaki zer egin
Gryffindoreri berriz
Punta gabe ze min!

Her dauden beste umeekin
Ez daki zer egin
Konfinamendu honekin
Ez baita atsegin

Egileak: Ander, Ariadna, Noa eta Oier

RON WEASLEY

Ronek itxialdian
Magia egiten du
Eta bere lagunak
Astero asperta

Ronek du ile motza
Eta gorria
Hortzak txuriak eta
Barita txikia

Bigarren fase honetan
Ron berriro kontent
Eskolara joan eta
Gustura jolasten

Egileak: Dara, Demba, Unai eta Ani

FRED ETA GEORGE WEASLEY

Klasean betikoa
Aspergarriak dira
Baina behintzat Quidditchera
Jolastu ohi gara

Etxeko lan pila bat
Ditugu egiteko
Eta pila bat filma
Ere ikusteko

Gure karameluak
Egiten ditugu
Eta jendeak diru
Asko ematen digu

Txantxa batzuk egiten
Dibertitzen gara

Eta bederatzietan
Denok afaltzera

Hetsizanak ikusi
Beharko ditugu
Bestela ezingo dugu
Ronori txintxatu.

Egileak: Irati, Oier, Aimar eta Mara

HERMIONE

Hermione mago ausarta
Eta jakintsua
Bere makilarekin
Magia egiten doa

Bere lagunak dira
Ron eta Harry ere
Baina konfinatuak
Daude ikusi gabe

Maiatza bukaeran
Fasez aldatu da
Ta orain denak pozik
Goazen jolastera

Oso gustuko dugu
Guk magia jada
Baina eskolatik kanpo
Debekatua da.

Egileak: Ekain, Ane, Ieritz, Alain eta Maialen

HARRY

Harry izenarekin
Bertsoa egiteko
Hori izan da erronka
Taldearentzako

Bertsoa idazteko
Harry izenarekin
Denon artean behar
Genituen egin

Pozik idatzi dugu
Denen aukerako
Bertsoak kantatzea
Denak alaitzeko

Gu bertsoa asko eginda
Goaz eskolara
Egoera pasata
Alaituko gara

Egileak: Araitz, Adrian, Evelina, Julen eta Oihan

Aurtengo ikasturtean Belaskoenea ikastetxeak bizikleta eta balioekin loturiko proiektu berria estreinatu du

Belaskoenea ikastetxeak ikasleak eta bizikletak uztartzen dituen proiektua lantzen hasi zen 2020ko irailean. Proiektuaren helburua Gurpil Artea elkarteak mailegatutako bizikleten bitartez haurrei bi gurpiletako bizikletan ibiltzen irakastea da, eskolako beste ikasgaietako edukiak errepasatzen dituzten bitartean. Hortaz gain, haurrek bizikleten mantentze-lana eta erabilpen egokiarekin loturiko edukiak barneratuko dituzte.

Liber Etxebarria Belaskoenea auzoko ikastetxean bizikleten proiektua garatzen ari den irakasleetako bat da. Etxebarria irakasleak azaldu duenez, irailean hasi ziren eskolan bizikletekin loturiko proiektuari bueltak ematen. Hasiera batean, errenteriako Gurpil Artea elkarteko kideekin harremanetan jarri ziren haiek eskainitako bizikleten mekanikako ikastaroengatik eta horrela elkartearen nondik norakoen berri jaso zuten. Elkartea zakarretara botatako edo udalek berreskuratutako bizikleta lapurtu edo abandonatuak zaharberritzeaz arduratzen da, ostean, maileguan eskaintzeko.

Gauzak horrela, elkarteak mailegatutako bizikletak aprobetxatuz eskolan saio batzuk antolatzea interesgarria izan zitekeela pentsatu zen. Liber Etxeberriak azaldu duenez, "ekintza horiek egiteko patioa erabili behar dugunez, eguraldirik egokiena hiruhileko honetakoa izan zitekeela pentsatu genuen". Gainera, ikasturte oso mugatu eta berezia izango zutela aurreikusita, haurrak ikasgelatik ahalik eta gehien ateratzen saiatzeko ekintzak antolatu dituztela gehitu du. "Oso interesgarria iruditzen zaigu ikasgaiak naturan eta mugimenduan lantzeko aukera, kanpoko esperientziekin osatu ahal izateko", adierazi du Etxeberria irakasleak.

Ezagutzak partekatzeko aukera

Gurpil Artea elkartetik bost bizikleta utzi dizkie eta Belaskoenea ikastetxean bizikletekin loturiko ekintzak aurrera eramaten hasi dira. Bizikletak lehenengo zikloko ikasleekin erabiliko dituzte, ikasle askok oraindik bi gurpiletan ibiltzen ikasteko aukerarik izan ez dutela ikusi ostean. Izan ere, asko dira etxean bizikletarik ez duten umeak edo inoiz bi gurpilen gainean ibiltzeko aukerarik izan ez dutenak. Liber irakasleak onartu duenez, haurren artean alde handia dago bizikletak erabiltzen dakiten eta ez dakitenen artean. Liber irakaslearen hitzetan, "oso polita da dakienak ez dakienari bizikletan ibiltzen erakustea". Hortaz gain, proiektuak beste ikasgai edo ekintzetan hain trebeak ez diren haurren artean arrakasta izan duela aipatu du irakasleak, izan ere, zerbaitetan nabarmentzeko aukera eskaintzen die.

> **"Oso polita da dakienak ez dakienari bizikletan ibiltzen erakustea"**
>
> Liber Etxebarria, Belaskoeneako irakaslea

> **"Bizikletak eskolan estreinatzeko gogo handia daukagu"**
>
> Yali Diouf, Kenia Santos eta Yassine Zaouri, Belaskoeneako ikasleak

Teoria hutsetik praktikara

Proiektuaren helburu nagusia haurrek bi gurpileko bizikletetan bakarrik ibiltzen ikastea da, 7 eta 8 urte arteko haurrak direla kontuan hartuta, irakasleek horretarako gaitasun nahikoa daukatela ulertzen baitute. Hala ere, bizikletak maneiatzen ikasteaz gainera, proiektuak eskolan landutako edukiak errepasatu eta barneratzen laguntzeko baliagarria izatea espero da. Irakasleen asmoa bizikletak astean behin arratsaldez Belaskoenea ikastetxeko jolastokian erabiltzea da eta, horretarako, ginkana moduko saioak prestatu dituzte. Zirkuitu desberdinak prestatu dituzte, haurrek bizikletak partekatzen dituzten bitartean, "Trivial" motako galderei erantzun diezaieten. Bidean aurkituko dituzten erronketan matematika, natura edo bestelako ikasgaiekin loturiko galderak izango dituzte aurrean.

Bizikletarekin loturiko ekintzak jolastokitik ikasgelara ere eramango dituztela azaldu du Liber Etxebarria irakasleak. Esaterako, Gurpil Artea elkarteko kideekin haurrek gutunak trukatu dituztela azaldu du irakasleak, horrela, klasean gutunaren egitura lantzeko baliagarria izan zaielarik. Bestetik, bizikleta baten izena eta istorioa jaso zuten eta Gurpil Arteko kideek gainontzeko bizikleten izenak eta istorioak asmatzea eskatu diete.

Balioak nonahi

Ikasgelako edukiak errepasatzearekin batera, bizikleten erabilerarekin loturik hainbat balio barneratzen dira. "Bizikleta balio positibo ugarirekin loturik dagoela uste dut", adierazi du Liber Etxeberria irakasleak. Horrela, kontsumo arduratsua, autorregulazioa edo kooperazioaren garrantzia irakasten ari diete irakasleek. Gainera, bizikletak garbitu, gorde eta zaintzeko irizpideak praktikan jartzeko aukera izan dute.

Irakasleak gaineratu duenez, bizikletak eskolan jaso eta ikasleek ikusi zituztenean ikasleen erreakzioa nahiko berezia izan zen. Izan ere, bizikletak jaso aurretik ikasleei zaharberritutako bizikletak izango zituztela azaldu zieten. Bizikletak ikusitakoan, ordea, ikasleek harriduraz erantzun zuten, ez baitzuten ulertzen nola jendeak horrelako bizikleta ederrak galdu eta zaborretara bota ditzaketen. Erantzun hori ulergarria da, jakinik haietako askok etxean bizikletarik ez dutela.

Aurtengo arrakasta ikusita, hurrengo ikasturteetara begira ikastetxeak proiektua bultzatzen eta zabaltzen jarraitzeko asmoa duela azaldu du Etxebarria irakasleak. Hori dela eta, haurrak hazten diren heinean neurri handiagoko bizikletak beharko lituzketela aurreikusten dute. Proiektua zabaltzen jarraitzeko eskola eremutik atera eta hiriko bidegorri sarean murgiltzea izan daiteke hurrengo urratsa. "Irungo erdialdeko bidegorri sarea ez denez, Katea edo periferiako bidegorriak haurrekin irteerak egiteko egokiagoa izan daitezke", gaineratu du Liber irakasleak.

Ikasleen esperientzia

Yali Diouf, Kenia Santos eta Yassine Zaouri Belaskoeneako ikasleek bizikleten proiektuan parte hartzeko aukera biziki gustatu zaiela adierazi dute. Esaterako, Yalik eta Yassinek azaldu dutenez proiektu honekin hasi aurretik eskolatik kanpo ez zuten bizikletan ibil- tzeko ohiturarik, beraz, proiektu honi esker bizikletan bi gurpilekin ibiltzen ikasteko aukera asko aprobetxatzen ari dira. "Bizikletak eskolan estreinatzeko gogo handia daukagu", adierazi dute Yalik, Keniak eta Yassinek. Elkarrizketa egindako egunera arte bizikletak garbitu eta erabili ahal izateko prestaketa lanekin lanpetuta ibili direla azaldu dute Belaskoeneako hiru ikasleek. Prestaketa lanez gainera, bizikletei izena jartzeko tartea izan dute ikasleek eta Txipi, Rabit, Gotz eta Txop izenak ipini dizkiete.

Prestaketa lanetan asko inplikatu diren arren, bizikletak eskolako patioan probatzeko eta alde batetik bestera ibiltzeko irrikaz daudela onartu dute ikasleek. Izan ere, elkarrizketa egin zen arratsaldean bertan sorpresa izango zutela aurreratu zien irakasleak ikasleei, ikastetxeko patioan bizikletekin jolastuko zutela esanez eta haurrak oso pozik agertu ziren irakasleak kamera aurrean proposatutako ekintzarekin. Oraindik bizikletak probatu ez arren jada beste egun batean ekintza errepikatu eta gehiagotan bizikletekin ekintzak egiteko gogoa adierazi zuten aho batez Yalik, Keniak eta Yassinek. Belaskoeneako ikasleek esandakoaren arabera bizikletan bi gurpilekin bakarrik ibiltzen ikasteak bere zailtasunak dauzka, oreka mantentzeaz gainera, bizikletaren katearekin arazoak sor daitezkeelako. Hala eta guztiz ere, ikasleen motibazioak argi utzi du gustuko tokian aldapa edo zailtasunik ez dagoela.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Zer da Europako Elkartasun Kidegoa?

Europako Elkartasun Kidegoa Europako Batasuneko ekimen bat da helburua duena aukerak sortzea gazteek boluntario gisa lan egin dezaten edo Europa osoko erkidego eta herritarrei onura ekarriko dieten proiektuetan kolaboratu dezaten (beren herrialdeetan edo atzerrian).

Boluntariotza, praktikak eta enplegua dira aukerak.

Norentzat: 18-30 urte. 17 urtetik aurrera izena eman daiteke.

Iraupena:

- Boluntariotza: 2 astetik urte 1era.

- Praktikak: 2-6 hilabete.

- Enplegua: 3-12 hilabete.

Non: Oro har, Europa Batasuneko Estatukideetan egiten dira.

Zer eskaintzen du:
-Boluntariotza: Lekurako joan-etorria, bertako garraioa, bizitokia, mantenua, asegurua, prestakuntza, hizkuntza-prestakuntza eta eskudirua.

-Praktikak eta enplegua: Lan-kontratua arau nazionalen arabera, dietak eta laguntza txiki bat atzerriko herrialdeko joateko gastuetarako.

Interesatzen bazaizu, izena eman, osatu zure perfila, markatu zure interesak eta hasi eskaintzak jasotzen!

Europako Elkartasun Kidegoaren helburua da gazteak erakartzea elkarrekin gizarte integratzaileago bat eraikitzeko, pertsona zaurgarriei lagunduz eta gizarte-erronkei erantzunez. Esperientzia akuilagarri eta aberasgarria eskaintzen die lagundu, ikasi eta hazi nahi duten gazteei.

Global training bekak

GLOBAL TRAINING 2021 beka programaren helburua da Euskadiko gazteen nazioarteko prestakuntza eta mugikortasuna ahalbidetzea, eta horretarako, gazteek euren profil akademikoari lotutako jarduerak eta proiektuak egiten dituzte esperientzia profesionala eskuratzeko atzerrian.

Programa honek hasierako prestakuntza eskaintzen du, bai eta 6-12 hilabete arteko praktikak bat atzerriko enpresa eta antolakundeetan, bekadunek esperientzia profesionala eskura dezaten nazioarteko inguruneetan.

EBren elkarrizketa gazteekin

Online inkesta, gazteen iritziak hobeto ulertzeko, gaitzat harturik Europako Gazteriaren Xedea: espazioa eta parte-hartzea guztiontzat.

Gazteek biltzeko, ikuspuntu politikoak eztabaidatzeko eta gazteentzako proiektu garrantzitsuak antolatzeko zer-nolako espazio publikoak behar dituzten jakin nahi dugu.

Halaber, ziurtatu ere nahi dugu gazteek informazio argia jasotzen dutela interesatzen zaizkien gai publikoei buruz, eta lagundu egin nahi diegu informazio-mota hori ulertzeko eta modu kritikoan hausnartzeko behar dituzten gaitasunak eskuratu ditzaten.

Igazteren webgunean aurkituko duzun galdetegia betetzera gonbidatzen zaitugu; minutu batzuk baino ez dituzu beharko.

Epea: Ekainak 15

2021eko Gazteen sorkuntzarako Injuve laguntzak

Sortzaile gazteentzat dira, 2022an ikusizko arteetan, arte eszenikoetan, musikaletan, literaturan, diseinuan, komikietan eta ilustrazioan garatu beharreko proiektuetarako.

Aurkeztutako proiektuak lau jarduera-ildo hauetako batean sartu behar dira:

1. Obraren ekoizpena: formatu eta teknika libreko proiektu artistikoak egitea (18-30 urte), 5.000 € arte.

2. Sortutako obrako mugikortasuna eta/edo sortzaileen mugikortasuna gune espezializatuetan, biretan edo egoitzetan (araututako ikasketak izan ezik), estatuan eta nazioartean (18-30 urte), 5.000 € arte.

3. Gazteen sorkuntzarako ekintzailetza: kultura-ekintzailetzako proiektuak garatzea, helburutzat hartuta jarduera bat hastea edo sortu berri bat mantentzea estatuan edo nazioartean (18-35 urte), 10.000 € arte.

4. Gazteriaren Institutuko Amadis aretoa: erakusketetako komisariotza, tailer-programazioa edo beste jarduera sortu berri batzuk, talde edo kolektiboan egiteko (18-35 urte), 7.000 € arte.

Adina: 30-35 urte.

Epea: Maiatzak 4.

Yogako astapen Ikastaroa

Gazte-txartela eta Benowuk plaza doan eskaintzen dizute online ikastaro interesgarrietan. Gauzak horrela, yogan hasteko ikastaro berria eskaintzen hasi dira. Ikastaro horrek yoga posturak lerrokatzeko oinarrizko printzipioetan sakontzen du, modu seguruan egin ahal izateko, lesioak sahiestuz eta, horrela, praktika bakoitzean onura handienak lortuz.

Yoga ikastaroaz gainera, bestelako ikastaroak eskaintzen dira: argazkilaritza, aplikazioak sortzen programatzen jakin gabe, marketin digitala edo inbertsioa burtsan.

Maiatzak

1

Greziari buruzko jardunaldia

Zer: Alejandro Valverde Garcíak "La catarsis filmada: de Eurípides a Cacoyannis" hitzaldia eskainiko du, ostean, Michael Cacoyannis-en "Electra" emanaldia.

Non: Oiasso Museo Erromatarra.

Ordua: Hitzaldia 18:00etan hasiko da.

Sarrera: Gonbidapenarekin, lekuak bete arte.

2ra arte

Erakusketa

Zer: Fernando Postigo fotokazetariaren lana biltzen du erakusketak, Trantsizioari buruzkoa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jai egunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doakoa.

6

Laburbira

Zer: Euskarazko sortzaileen lana ezagutarazteko eta ikusleei euskaraz sortutako lanez gozarazteko film laburren zirkuitu ibiltaria.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

Iraupena: 70 minutu.

13

Zure abenturaren bila

Zer: "Ekialdea amets: Turkiatik Iranera bizikletan". Agurtzane Belaunzarán Ankara eta Teheran pedalkadaz-pedalkada.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin. Gonbidapenak antzokian bertan banatuko dira emanaldia hasi baino 30 minutu lehenago.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 45 minutu.

14

Dokulrun 2021

Zer: "Aurrera egin badugu" dokumentalak Jaizkibel konpainiako hiru kideren eta eragin handiko hiru emakumeren arteko elkarrizketaren bidez Jaizkibel konpainiaren historia laburbiltzen du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doako sarrera gonbidapenarekin. Gonbidapenak Irungo turismo bulegoan eskuratu daitezke.

16

Musika

Zer: Mikel Azpiroz piano-jotzaileak bere azken lana aurkeztuko du, Fernando Neira (kontrabaxua) eta Karlos Arancegui (bateria) lagun dituela.

Non: Amaia Kultur zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak



U	W	M	B	U	T	W	W	M	M	X	H	X	Z
U	F	M	E	B	Y	R	F	B	F	B	G	Q	T
T	W	T	K	W	O	T	W	R	E	D	Q	R	G
Y	W	V	W	C	A	U	U	D	J	L	M	H	V
B	C	V	I	N	U	Y	D	V	S	B	E	U	L
X	F	K	U	W	O	P	T	N	N	E	O	D	Y
E	K	U	H	I	A	Y	T	A	N	L	A	N	Y
J	H	B	C	V	Z	S	H	F	H	A	H	X	J
I	U	Q	H	O	N	T	Z	J	J	T	Q	Z	J
P	P	U	T	R	E	Z	U	S	O	Z	I	O	G
E	Z	J	G	V	B	U	V	A	G	V	J	Q	M
Q	O	G	A	T	T	P	K	L	F	N	R	L	N
B	Z	C	B	O	B	E	L	T	X	A	R	G	A
Y	O	I	E	T	C	G	B	Y	A	K	L	V	M

3	9	4	7	2	6	1	8	5
6	7	2	1	8	5	9	3	4
1	8	5	4	3	9	6	7	2
2	5	3	6	4	1	7	9	8
9	6	8	5	7	3	4	2	1
7	4	1	8	9	2	5	6	3
5	1	7	2	6	8	3	4	9
8	3	6	9	5	4	2	1	7
4	2	9	3	1	7	8	5	6

360°

Estudio Goverretik sektore profesionalera zuzendutako argazkilaritza digitaleko marka berria aurkezten dugu.

Katalogo, webgune, sare sozial eta "take away" zerbitzua eskaintzen duten enpresentzako argazkiak egiten ditugu.

ZURE ENPRESAREN IRUDIAK GARRANTZI HANDIA DU.

Bisitatu gure webgunea!
www.fdefoto.es

-GASTRONOMIKOA
-PRODUKTUAK
-KATALOGOAK
-PUBLIZITARIOA
-EKITALDIAK
-INMOBILIARIAK
-KORPORATIBOA
-2D 360º-NOBEDADEA!

fdefōto

LETXUNBORRO HIRIB. 100 , 2ºA
20305 IRUN - GIPUZKOA -
hola@fdefoto.es
fdetofo.es
943 840 113 - 647 930 484